

HUARTE/UHARTE

Udal diktamena:

Sr. Alcalde

Mikel Gorrotxategi Nieto secretario de la comisión de Onomástica de Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

Certifica:

Que esta comisión, en su sesión de octubre, entre otros temas, ha tomado, entre otras, la siguiente resolución:

“1.1.6. Se procede a la lectura de la petición realizada por el ayuntamiento de Huarte relativa al cambio de nombre por el de Uharte. La comisión encomienda al miembro de la misma y profesor de la Universidad Pública de Navarra, P. Salaberri la realización del dictamen que goza del visto bueno de la comisión.”

Adjunto le envío el dictamen realizado por Patxi Salaberri, en caso de desear alguna aclaración posterior no dude en ponerse en contacto con esta comisión. Atentamente se despide,

Mikel Gorrotxategi Nieto

12.XI.1993

HUARTE / UHARTE DELA ETA

Uarte izena oso arrunta de euskal toponimian, eta bere etimologiak ez du arazorik sortzen: osagaiak *ur* “agua, riachuelo, río...” izenaren el-karketako aldaera den *u-* eta *arte* “bitarte” dira, eta jatorrizko adiera “bi uren bitarteko eremua”, hots, “bi erreken edo bi ibairen (edo erreka baten eta ibai baten) tartea” da, erdarazko *Ambasaguas*, *Entrambasaguas*, *Entredosaguas*, *Trambasaguas*, *Tramasaguas* eta besteren kide delarik.

Euskaraz *Uarte*, *Ubitarte*, *Errekabitate*, *U (r)bieta* aurkitzen ditugu, besteak beste.

Uarte-ren ondoan arrunta ohi da *Ugarte* aldaera, *ug-* ere *ur*-en elkarretako aldaera baita, eta adibidez Iruñe ondoko *Uharte*-ri inguruko herrietan oraindik ere *Ugarte* esaten zaio, XI. mendean bezala (1). Kasu honetan *Uharte* izena herria Arga eta Urbi ugaldeen artean egotearen ondorea da. Arakil ibarreko *Uharte* herriak ere izena San Bartolome errekaaren eta Arakil ugaldearen artean kokatua izatetik hartzen du, eta honi ere inguruko herri batzuetan oraindik *Ugarte* esaten diote (dokumentazioan ere arrunta da aldaera hau, Rafael Carasatorrek gaztigatu digunez).

Toponimian ongi ikusten den bezala, jatorriz *ugV* (alegia, *ug-* + bokala) zuten hainbat leku-izenek *ubV* dute orain, beharbada *u* ezpainkariaren eraginez. Hau oso garbi ikusten da *Ugarte* } *Ubarte*, *Uberte* (bokal-armoniaz), } *Ubaran*, *Uberan* (bokal-armoniaz), } *Ubarka*, *Uberka...* eta irudiko beste hainbat toponimotan (*ubarka* izen arrunta ere bada), eta mintzagai dugun herri-izanaren kasuan ere garbi azaltzen da, inguruko herri batzuetan *Uberte* esaten baitzaio. Tarteko *-b-* hori hiatoa segurtatzeko soinua izan liteke (cf. *suberte* izen arrunta } *suerte*), baina egiantz handiagoa du oraindik bizirik dagoen *-g-* horren ordezkotzat jotzeak. Hau da, oraingo *Uberte* bizirik ere dagoen *Ugarte*-tik atera izanen da, *ubarka*, *uberka* aurreko *ugarka* batetik atera den era berean (cf., gainera, Arakilen bertan dagoen *Zuhatzu*, *Zuga(t)zu* eta *Zubetzu* inguruko herrietan, *zuhaitz* + *-zu*-tik).

Grafiari dagokionez, esan beharra dago erdaraz idazterakoan anarkia handi samarra edireten dugula dokumentazioan, *h*-ak, eta batez ere hasierakoak, aski kendu-utzizkoak direlarik, alegia, notariak gogoak eman arabera jartzen edo kentzen du *h* letra maiz. Guztiarekin ere, eta *Uarte*-ren kasuan, betelako arrazoia ere bazen hitz hasieran *h-* idazteko: *horrela* egin ezean, *Uarte* (*Varte* ere idatzia seguru asko) *Barte* irakur baitzitekeen, erromantzez ezpainhorzkari ahostunaren galtzea zaharra izaki (2). Hortaz, eta seguraski, erdarazko *Huarte*-ren hasierako *h-* letraren iturbua *Uarte* [uárte] irakurri behar zela (eta ez *Barte*) adierazi nahian bilatu beharko dugu.

Uharte formari dagokionez, gogoratu beharra dago Euskal Herrian barrena bat baino gehiago direla izen honetako herriak (eta auzoak. Cf. Lekarozko *Uharte*). Nafarroa Beherean bi ditugu: *Amikuze-Uharte* (*Uhart-Mixe* frantsesez, *Uharte*, *Uhartiri* euskaraz), eta *Garazi-Uharte* (*Uhart-Cize*

(1) Ikus *Nafarroako toponimia eta mapagintza-I*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992.

(2) Ikus Alarcos Llorach-en *Fonología Española*, Gredos, Madril, 1991, 254, or. eta hurrengoak.

frantsesez) (3). *Kasu hauetan tarteko* —*h*— hori (*uh- ur-en* elkarketako beste aldaera bat da) soinu hasperendua da, hasperenketa bertan oraindik ere bizirik baitago, oso goiz galdu zen Nafarroa Garaian ez bezala.

Hortaz, garbi ageri da, alde batetik, Nafarroako *Uarte* [uá̃rte] ofizialak (grafiak grafia) *Ugarte* eta *Uberte* aldaerak dituela, eta bestetik, hauek Iparraldeko *Uharte* [uhá̃rte]-ren kide zehatzak direla. Beraz, eta Nafarroa Behereko [h] soinua emateko *h* grafema ibiltzen badugu, aise ulertzen da soinu hasperendu horren kide hurbila den Nafarroa Garaiko [y] edo [β] horien orden Euskaltzaindiak *h* aukeratu izana.

Gogoan izan behar da Akademiak erabakiak hartzeko oruan *Euskal Herria bere osotasunean hartzen duela aintzat*, eta Arakilgo herriaren kasuan ere horrela egin zuela, Nafarroa Behereko herrien izenetan arrunta den grafema (hotsean oinarritua dagoena, esan bezala) Nafarroa Garaiko herrien izenetan ere sartu zuelarik, hemen aspaldidanik *μ* nahiz —*g*— (—*b*— berriagoa bide da, esan bezala, eta azken honetatik aterea) badugu ere.

Patxi Salaberri,
Onomastika batzordekidea

(3) Ikus Jean-Baptiste Orpustanen *Toponymie Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, Bordele, 1990, 52. eta 123. orr.